

**HERNANIKO UDAL GOBERNUAREN ADIERAZPENA ITXASO ZALDUA HERRITARRAREN
ATXILOKETAREN HARIRA**

Asteartean Polizia Nazionalak Itxaso Zaldua herritarra atxilotu zuen lanera bidean zihoala eta atzo Nazionalako epaileak kartzelaratzeko agindua eman du. Itxaso Zalduak 12 urte pasa ditu frantziar kartzeletan eta orain hiru urte libre geratu zen bere zigorra bete ondoren. Hernaniko Udal Gobernuak honako adierazpen hau egiten dugu:

Itxasoren atxiloteta hau Euskal Herrian irekitako demokrazia eta askatasun bidearen kontrako eraso da. Euskal Herriak bake, bizikidetzeta eta askatasun agertoki berri bat eraikitzeko determinazioa hartua du. Horrelako atxilotetek eta Espainiar Estatuaren itxikeriak eta mendeku politikek euskal jendarteak hartutako konpromiso hori zapuztu nahi dute.

Herri honen borondateari oztopoak jartzeari uzteko eta bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko apustua egiteko garaia dela pentsatzen dugu. Tankera honetako atxilotetek eta espetxeratzeek ez dute lekurik Euskal Herrian.

Arduraz jokatzeko garaia da eta berresten dugu gatazka politikoari irtenbide demokratikoa emateko unea dela.

Hernanin, 2020ko uztailaren 23an

Hernaniko Udal Gobernuak